

Jardunaldietako sarrera hitzaldiak

Agintari guztiok,
Irakasle, magistratu, epaile, legelari jaun-andreok,
Hemen bildutako jaun-andre agurgarriok,

Justizia eta Burujabetza-ren inguruan antolatutako jardunaldi hauei hasiera emateko, Euskal Autonomia Erkidegoan daukagun Justizia Administrazioaren egoera zein den azalduko dut jarraian. Laburra izango naiz, baina nire ustez aipatzea merezi duten puntu guztien berri emango dizuet.

Zera dio Konstituzio espainiarreko (aurrerantzean KE) 149.1.5 artikulua: *“Estatuak eskuduntza eskusiboa dauka Justiziaren Administrazioan”*.

Artikulu horretatik abiatuz, zera adierazi zuen Auzitegi Konstituzionalak bere 56/1990 Epaian:

- Botere Judiziala bakarra da jurisdikzionalki (KE 117.5), eta epaitzea eta epaitutakoa betearaztea dagokio.
- Bakarra da halaber Botere Judizial horren gobernua, Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrari dagokiona (KE 122.2).

Hortxe amaitzen da, beraz, 149.1.5 artikulua Estatuari modu eksklusiboan esleitzen dion eskuduntza. Epaia horrek berak aurrerago dioenez, *“Justizia Administrazioaren funtsezko muin horretatik at, bitarteko pertsonal eta materialei dagokien multzoa dago. (...) Ondorioz, ez direnez ez funtzio jurisdikzionala ez eta Botere Judizialaren autogobernuko funtsezko elementu, zilegi da autonomia erkidegoek bitarteko horiekiko eskuduntzak berenganatzea”*.

Esandakoaren harian, zera da Auzitegi Konstituzionalak zalantzan jartzen duena: Justizia Administrazioaren Administrazio bezala ezagutzen dena, 149.1.5 artikuluan barnebilduta al dago? Edota, aitzitik, Justizia Administrazioaren eremutik kanpo dagoen gai independente bat al da? Eztabaida honen inguruan sortu diren bi korronteen artean, bigarren iritzi honen aldekoa da gehien zabaldu dena.

Bitarteko material eta ekonomikoen gaineko eskuduntza, “Justizia Administrazioaren Administrazioa” delakoa, alegia, 1987an transferitu zitzaigun Euskal Autonomia Erkidegora, eta 1996an, aldiz, Justizia Administrazioan lanean ari den pertsonalaren horniketari dagokiona. Baina, batasun eta eskusibotasun irizpideak direla-eta, ez zaigu ezer tranferitu “Botere Judizialaren muin ukiezinari” dagokionez.

Bitarteko material eta pertsonal horiekiko eskuratu ditugun eskuduntzen harian, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailean ahalegin berezia egin dugu gainetik baino aipatuko ez ditudan arloetan:

- Zerbitzu judizialen hobekuntza: elementu gerentzialak indartu ditugu, funtzionarioen hezkuntza espezializatua areagotu, eta, era berean, prozedura judizialak arintzeko sistemak jarri ditugu abian. Guztia, zerbitzu publiko hobe emateko asmoz.
- Azpiegituretan: Gasteiz eta Bilboko Justizia jauregiak eraiki eta birgaitu ditugu, besteak beste.
- Informatikan: Epaitegien arteko nahiz hauen eta profesionalen arteko komunikazio telematikoa sortzen ari gara.

- Euskalduntze prozesuan: Justiziaren Administrazioa erabat elebiduna izan dadin, Epaitegi eta Auzitegien aurrean euskara sustatzen ari gara, bai epaileak, bai langileak hizkuntza koofiziala ikastera bultzatuz.

Hala eta guztiz ere, hau guztia ez zaigu inolaz ere nahikoa iruditzen. Aurrerago jo nahi dugu, eta horregatik gaude Nazioarteko Jardunaldi hauetan. Historia aztertu eta gogoeta egin behar dugu; hemendik kanpoko eremu politiko-sozialean gertatzen ari dena ezagutu behar dugu, hortik abiatuta gure autogobernua osatuko duen justizia autonomo bat lortzeko pausoak eman ahal izateko.

Gure Justizia Administrazioak gaur egun daukan *status*-a zein den jakiteko, sakon aztertu, mediatu eta hausnartu beharra daukagu. Betiere, alderdi teleologikoa ahaztu gabe, Justizia Administrazio autonomo batean oinarrituta, bake giroko elkarte bat izan gaitezen. Gogora ditzagun Arnaud OIHENART jurista zuberotarrak esandako hitzak: “Nori berea da giza-legea”.

Abel MUNIATEGI ELORZA

Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordea



Irakasle, magistratu, epaile, legelari jaun-andreok,
Jaun-andre oro,

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburua naizela-eta, *Justizia eta Burujabetza*-ri buruko jardunaldi emankor hauei bukaera ematea dagokit. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahiko nizkizueke etorkizunera begira guztiz mesedegarriak izango diren azterketa eta hausnarketa-rako jardunaldi hauetara hurbildu izanagatik.

Estatu espainiarraren baitako Autonomia Erkidego honetan Konstituzioan eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuan oinarritutako autogobernua daukagu, Kontzertu Ekonomikoaren Legearekin eta Lurralde Historikoen Legearekin osatzen dena. Autogobernu horren emaitza gisa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoek osatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoa daukagu, eta Konstituzioko 137. artikulua "beren interesak kudeatzeko autonomia" aitortzen die autonomia erkidegoei.

Autonomiaren kontzeptu juridiko-publikoak garrantzi handia izan du arau nahiz legeak emateko gaitasun gisa, baina gaur egun, doktrinak bere ikuspegia aldatu egin duela-eta, deszentralizazio administratibo edo, dagokionean, politikoa besterik ez du adierazten.

Estatu unitario espainiarrak deszentralizatzeko erabakia hartu zuenean, "beren interesak kudeatzeko" autonomia esleitu zien autonomia erkidegoei Konstituzioaren bitartez. Horrela bada, ahalmen legegilea egikaritzen duen Legebiltzarra, eta funtzio exekutibo nahiz administratiboa dauzkan Jaurlaritza dauzkagu Euskal Autonomia Erkidegoan.

Gai batzuei dagokienez, eskuduntza eskusiboa dauka Euskal Autonomia Erkidegoak; beste batzuetan, Estatuko oinarritzko legedia garatu eta exekutatzekoa, eta, zenbaitetan, Estatuko legedia exekutatzeko hutsekoa. Beraz, eskuduntza legegile eskusiboa eta Estatuko oinarritzko legedia garatzekoa dauzka Eusko Legebiltzarrak. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, bertako nahiz Estatuko legedia erregelamenduen bidez garatzeko eskuduntza dauka, eta lege eta erregelamendu horiek egintza administratibo bidez exekutatzekoa.

Eta zer gertatzen da Justizia Administrazioarekin?

Hona zer dioten Konstituzioko 152.1 artikulua: "Justizia Auzitegi Nagusi bat izango da autonomia erkidegoko antolaketa judizialean gailurrean, Auzitegi Gorenari dagokion eskumenari kalterik egin gabe".

Bestetik, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, bere 34.1 artikuluan dio "Euskal Herriko Justizia Administrazioaren egituraren buru, Autonomia Erkidego guztian eskuduntza izango duen Justizia Auzitegi Nagusi bat" egongo dela.

Ondorioz, Autonomia Erkidegoan egon badago Auzitegi Nagusi bat, baina ez da Autonomia Erkidegokoa, Konstituzioko 149.1.2 artikulua esanetan Estatuak eskuduntza eskusiboa daukalako "Justizia Administrazioaren" arloan, eta, 117.5.ean dioenez, "auzitegien egitura eta funtzionamenduaren oinarrian, eskumen batasunaren printzipioa dago", Botere Judizialaren Lege Organikoko 3.1 artikuluan ere jasotzen dena.

1987. urtean, bitarteko material eta ekonomikoak transferitu zitzaizkigun. Hori dela-eta, egoitza judizialak eraiki eta birmoldatzeari ekin diogu, duin eta modernoak izateaz gain, ahalik eta zerbitzurik onena eskain diezaieten hiritarrei, justiziara hurbiltzeko erraztasunak emanez. Era berean, abian jarri dugu bulego eta erregistroetako informatizazio telematikoa ere.

1996an, Justizia Administrazioaren zerbitzura lanean ari den pertsonalaren horniketarako eskuduntza jaso genuen, horrela pertsonal hau deszentralizatu eta Autonomia Erkidegoko funtzionario propioak sortu ahal izango zirelakoan, baina oker geunden ostera. Deskonzentratu besterik ez da egin pertsonal hau, eta argi dago “deskonzentrazioa” eta “deszentralizazioa” ez direla gauza bera. Deskonzentratu egin da, bai, lanpostuei dagokionez ezin dugulako Justizia Administrazioarentzat funtsezkoa den euskararen ofizialtasunak eskatzen duen hizkuntz eskakizunik sartu ere egin. Hortxe dago Estatuko Administrazioak Auzitegi Konstituzionalaren aurrean tarteratutako errekurtoa.

Beste hainbeste esan behar da pertsonal honen ordainketari dagokionez. Autonomia Erkidegoak ezin du *motu proprio* zenbait osagarri gehitu. Honen arrazoia zera da: Administrazioaren zerbitzura lanean ari den pertsonala Kidego Nazionaletan sartuta dagoela, nahiz eta Autonomia Estatutuko 13.1 eta 35.3 artikuluek esaten duten Euskal Autonomia Erkidegoak Botere Judizialaren Lege Organikoak Gobernuari esleitzen dizkion eskuduntza berberak izango dituela bere lurraldean pertsonal horri dagokionez. Horixe da “Justizia Administrazioaren Administrazio” deitutakoaren inguruan bizi dugun egoera.

“Botere Judizialaren muina”-ri dagokionez, argi dago, aipatutako batasun eta eskusibotasun printzipioak direla-eta, deus ez zaigula transferitu. Ez da ez deszentralizatorik ez deskonzentratuorik egon.

Hau guztia, *grosso modo* esanda, “Justizia autonomikoa” delakoa izango litzateke. Baina ez zaigu nahi-koa iruditzen; gehiago lortu nahi dugu. Estatu nazioaniztun bati Justizia autonomo bat dagokiola uste dugu.

Autonomiak ez du batasuna pitzatzen; uniformitatea apurtu baino ez du egiten. Gauzen naturan eta maila sozialetan present dago aniztasuna, eta Zuzenbideak aniztasun horren parekotasuna bilatu behar du, ez ordea uniformitatea. Beti bilatu behar da parekotasuna, aniztasunean berdintasuna bezala.

Autonomia Erkidego hau benetan autonomoa izan dadin, beraz, Justizia autonomo bat aldarrikatzen du Jaurlaritzak. Botere Judizialaren hiru arloak deszentralizatuko lirateke horrela:

1. Gobernuaren arloa: Eusko Legebiltzarrak izendatuko lukeen Botere Judizialaren Euskal Kontseilua, urtero bere zeregin eta jardueri buruzko memoria aurkeztuko lukeena. Autonomia Erkidegoak, horrela, hirugarren botere deszentralizatu bat izango luke, legegile eta exekutiboarekin batera. Gainera, epaitetzako Gobernu Organua Justiziako eragileengandik gertuago egongo litzateke.
2. Administrazioaren arloa: Justizia Administrazioaren zerbitzura lanean diharduten Kidego Nazionalak lurraldeko edo autonomizatzea da asmoa. Justizia Administrazioaren zerbitzura dagoen pertsonal hau guztia deszentralizatu egin behar da, eta Autonomia Erkidegoko instantzia funtzionaletan sartu. Horretarako, aldatu egin beharko lirateke Botere Judizialaren Lege Organikoa eta hau garatzen duen Erregelamendua, eta auzitan jarriko litzateke Justizia Ministerioaren beraren existentzia.
3. Eskumenaren arloa: guztiz beharrezkoa da Kasazio eta Berrikuspen errekurtoak Euskal Autonomia Erkidegoko instantzietan gauzatzea, doktrina bateratzeko kasazio errekurtoa izan ezik.

Ezin dut Entzutegi Nazionala aipatzeko utzi. Ordena Publikoko Auzitegiaren ondorengo zuzena da Entzutegia, TOP triste harena. Salbuespenezko auzitegi bat da beraz, eta ordenamendu juridiko-publiko demokratikoetan debekatuta daude horrelakoak. Konstituzioko 117.6 artikulua espreski debekatzen ditu salbuespenezko auzitegiak; izan ere, Justizia gizartetik eratortzen denez, hiritarrek epaile arrunt eta naturalerako eskubidea daukate.

Honek guztiak erabateko zentzu politikoa daukala iruditzen zaigulako diogu hau guztia. Estatu nazioaniztun bateratu eta ustez deszentralizatu bateko nazio batek eska dezakeen gutxienezkoa da. Gure premisa politikoetan oinarritutako ondorio logiko eta koherentea da, eta, gure ustez, Estatu heterogeneo batean integratutako nazio baten autonomia politikoak ez du inolako botereren baitan trabatuta gelditu behar.

Onartezina da botere legegile eta exekutiboan autonomia edukitzea, eta judizialean, aldiz, heteronomia. Horra hor konpondu beharrekoa.

Argi dago arazoa juridikoa ere badela, eta horrek legeria aldatu behar izatera ere bagaramatzala. Hasteko, Botere Judizialaren Lege Organikoa eta bere Erregelamendu Organikoa. Konstituzioa bera erreformatzera ere eraman gaitzake. Ez gaitu hala ere doktrina eta dogmaren ikuspegitik ikaratu behar, Konstituzioak berak bere X. tituluan aurreikusten baitu bere erreforma. Ez da ez lan erraza izango, baina ezta ezinezkoa ere.



Hasiera batean, bada justizia autonomikoa aldarrikatzea ahalbidetzen duen bitartekorik. 150.2 artikulua berak balio lezake. Lege organiko berriek aurrekoak indargabetuko lituzkete, Justizia Administrazioari buruzko transferentziak aitortuz. Ostera, Konstituzioa berrikusi eta erreformatu behar baldin bada, beste bideren batean pentsatu beharko da.

Konstituzioaren eta interes nazionalitarioa gauzatzeko dauden aukeren interpretatzaile gorenak Auzitegi Konstituzionala da. Ez zaizkigu batere gustatzen ez bere osaketa, ezta bere kideak hautatzeko modua ere. Autonomia erkidegoak badaudenik ere kontuan hartu gabe proposatzen eta izendatzen dira bertako magistratuak. Hortaz, ez da harritzekoa ikuspegi zentralizatzaile eta zentzubakarrekota duela leporatzea. Kritika honek, bere Lege Organikoaren aldaketa aldarrikatzera bultzatu beharko gintuzke.

Hausnarketa hauetan murgildurik gabiltzala, begira diezaiogun gure historiari. Historia bizitzaren irakaslea baldin bada, ikus dezagun gure iraganak zer irakasten digun. Foru Administrazioak Justizia autoktonoa zeukan. Esparteroren baterakuntzara arte, 1841ean, herrialde honek Justizia desberdina zeukan. Horrela bada, Konstituzioko Lehenengo Xedapen Gehigarriaren eta Autonomia Estatutuko Xedapen Gehigarriaren arabera, Justizia autonomo guztiz deszentralizatua eska liteke egun.

“Konstituzioak eskubide historikoak babestu eta errespetatzen ditu...”. Dagoena baizik ezingo da babestu eta errespetatu; hortaz, eskubide historikoak egon badaude, euren titularrak foru lurraldeak nahiz Autonomia Erkidegoa izan, baina, edozein kasutan, azken hau izango da eskubide horien onuraduna.

Konstituzioa baino lehenagokoak dira eskubideok, eta Konstituziotik at daude, gure ustez. Izaera desberdina, berezko eskuduntzak eta Estatuarekiko harreman malguak islatzen dituzte. Horixe bera da Kanadako Auzitegi Gorenaren 1998ko abuztuaren 20ko Epaiak adierazitakoa. Konstituzioa baino lehenagoko oinarritzko printzipio demokratiko batzuk daude, Konstituzioa bera interpretatu eta kokatzeko balio dutenak, Konstituzioa bera sortzea ahalbidetu dutenak, “Konstituzioaren markoa” eta *habitat*-a osatzen dutenak.

Hori horrela izanik, zein antolaketa zeukan Justizia Administrazioak euskal lurraldeetan bai Aitzinako Erregimenean, bai epealdi liberalean? Zeintzuk dira aro garaikideko asmoak?

Amaitzeaz dauden nazioarteko jardunaldi hauek, aurrean dauzkagun gaien inguruan hausnartu eta sakontzeko balio behar digute. Eta nahitaez egin beharko dugu hori; izan ere, Konstituzioa araua baldin bada, hala izango da baita bere Lehenengo Xedapen Gehigarria ere.

Gure Autonomia Erkidegoa, konfigurazio juridiko-publikoa den heinean, Estatu heterogeneo baten baitan dago. Sarri askotan zera entzuten da gure autonomiaren inguruan: guztien artean garatuena dela, eta gainerakoek baino eskuduntza gehiago dauzkala. Justizia Administrazioan dauzkagun gabeziak ikusita, nik argi daukat hori ez dela horrela.

Zer gertatzen da Zuzenbide konparatuan? Nola dago antolatuta Justizia Administrazioa beste Estatu autonomikoetan? Zer gertatzen da Estatu federaletan? Kontuan izan funtsezkoa dela Estatu federalen eta autonomikoen arteko aldea, lehenengoak Estatu federatuen jatorrizko subiranotasunari egiten baitio aipu, eta bigarrena aldiz unitarismoari dagokiola, boterearen kuotak karten bidez emanez.

Berriro diot: azterketa eta hausnarketa eskatzen ditu honek guztiak, Justizia Administrazioari dago-kionez gure egoera barrutik eta kanpotik zein den jakiteko; hain zuzen ere horretan aritu zarete egunotan Zuzenbide Publikoaren azterle zaretenok. Baina ez dugu alderdi heuristikoa ahaztu behar, etorkizunean bakean eta justizian oinarritutako gizartea, benetako Estatu sozial eta demokratikoa osa dezagun. Ez ordea Justizia Administrazio autonomikoa edota Justizia Administrazioaren Administrazioa edukirik, baizik eta Justizia Administrazio autonomoa.

Nazioarteko Jardunaldi hauek horretarako lagungarri izango zaizkigula itxaro dut.

Eskerrik asko.

Sabin INTXAURRAGA MENDIBIL

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua